

# BESTELAKO XEDAPENAK

## EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

### 706

*AGINDUA, 2023ko otsailaren 6koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baita saileko ikuskatzaileentzako txartel-eredu bateratua.*

Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak (dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen ditu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen ditu) Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitekoak eta jardun-arloak ezartzen ditu 8. artikuluan. Hura garatzeko, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretua onetsi zen.

Saila ekoizpen-sektorearekin zerikusia duten jarduketan arloetan aritzen da: industria, nekazaritza, arrantza eta ingurumena. Funtzio horien artean dago ekoizpen-jarduera kontrolatzea, ikuskapen-jarduketan bidez; ikuskapen-jarduera horiek dagokion araudi sektorialaren arabera gauzatzen dira.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2015eko abuztuaren 3ko Aginduaren bidez, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren ikuskatzaile-txartelaren eredu bateratua onartu zen jardun-arlo guztietarako, arrantzarako izan ezik.

Arrantza, itsaski-bilketa eta akuikultura-instalazioak ikuskatzeko zerbitzuaren antolamenduari buruzko martxoaren 29ko 67/1982 Dekretuan ezartzen denez, ikuskapen-agenteei eta -laguntzaileei identitatea egiaztatzei agiriak eramango dituzte aldean. Arau hori indargabetu egin da Arrantza Ikuskaritzaren Zerbitzuaren urtarrilaren 24ko 9/2023 Dekretuaren bidez, ez baitu identifikazio-txartelaren eredurik ezartzen ikuskatzaileentzat.

Hori guztia kontuan hartuta, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko ikuskatzaileentzat txartel-eredu bateratua onartzea, jardun-arlo guztietarako. Txartel horren edukia eta formatua agindu honen eranskinean dago jasota.

Bigarrena.– Indarrik gabe uztea Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2015eko abuztuaren 3ko Agindua, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko ikuskatzaile-txartelaren eredu bateratua onartzen duena.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailaren 6a.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,  
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

2023ko otsailaren 10a, ostirala

## ERANSKINA

Aurrealdea:

 <b>EUSKO JAURLARITZA</b> <b>GOBIERNO VASCO</b> EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILEA DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE	Argazkia/ Fotografía
<b>IKUSKATZAILEA/INSPECTOR/A</b>	
Zk./Nº:	
Arloa / Área:	

Atzealdea:

Agiri honek egiaztatzen du titularra Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko ikuskatzailea dela, eta indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen funtzio eta eskumenak dituela. Administrazioako langileak, ikuskari zereginak betetzen dituztenean, agintaritza-agentetzat hartuko dira, eta beste edozein agintaritzari eskatu ahal izango diote laguntza, behar izanez gero.

Este documento acredita a la persona titular como Inspector o Inspectora del Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente con las funciones y atribuciones que la legislación vigente le concede. El personal dependiente de la Administración, en el ejercicio de la función inspectora, tendrá la consideración de agente de la autoridad y podrá solicitar el apoyo necesario de cualquier otra autoridad.

Neurriak / Medidas (mm): 85 x 53.